

# 2016

## EGILEENTZAKO GIDA



OCW Bulegoa

CAMPUS VIRTUAL BIRTUALA

19/01/2016

## Aurkezpena

<b>1.- Ongi etorria .....</b>	<b>3</b>
<b>2.- OCW ikastaro baten egitura .....</b>	<b>3</b>
<b>3.- Egile eskubideak .....</b>	<b>6</b>
<b>4.- Edukien edizioa.....</b>	<b>9</b>
<b>5. - Creative Commons lizentzia.....</b>	<b>9</b>
<b>6. - Espedienteen kudeaketa.....</b>	<b>11</b>
<b>7.- Zalantzak eta kontsultak .....</b>	<b>12</b>

## 1.- Ongi etorria

OCW (OPENCOURSEWARE) proiektuan parte hartuko duzuen guztiei aurretiaz eskerrak eman nahi dizkizuegu

Ondorengo taulan proiektu honetan erabili beharko dituzuen web helbideak azaltzen zaizkizue:

TRAINERA	Deialdiko eskari eta jakinarazpenetarako tresna	<a href="http://gestion.ehu.es/ocw">http://gestion.ehu.es/ocw</a>
OCW plataforma	Edukiak editatzeko	<a href="http://ocw.ehu.eus">http://ocw.ehu.eus</a>
Sinadura-ontzia	Parte-hartze baimena sinatzeko aplikazioa	<a href="https://gestion.ehu.es/bandejadefirma">https://gestion.ehu.es/bandejadefirma</a>

## 2.- OCW ikastaro baten egitura

Campus Birtualak, OCW bulego den heinean, kurtsoek izan beharreko atalak finkatzen ditu proiektuaren **autoikaskuntza eta kontsultarako** helburua lortzeko asmoarekin.

Edukiak irakasleek igoko dituzte [OCW-UPV/EHU](http://ocw-upv.ehu.es) plataformara

Kurtsoek eduki teoriko eta praktikoak izango dituzte, eta eduki ezberdinen artean oreka izan eta elkar osatuko dira. Erabilitako formatua homogeneoa izan beharko da.

Materialak egile/autorearenak izan behar dira, jatorrizkoak. Horrela ez bada eta besterenak diren materialak (irudi, grafika edo eskemak) erabiliz gero, jabetza intelektualari buruzko legediak ezarritako mugak kontutan izan beharko dira

Edukiek OCW proiektua, kurtsoaren izena, irakasle taldea eta lizentziari aipamena izan beharko dituzte. Eduki guztiek eredu bera izatea gomendatzen da.

Kurtsoek izan beharreko egitura ondoko hau da eta atal bakoitzak ezarritako zehaztapenak bete beharko ditu:

### 0. Aurkezpen bideoa

Aukerazkoa.

Campus Birtualak partaideei Leioan dagoen polimedia salan aurkezpen bideo bat grabatzeko aukera emango die.

Bideoaren gomendatutako iraupena 5 minututako izango da.

Bideoak jarraitu beharreko gidoiak ondoko atalak izango ditu:

- Ongi etorria
- Irakasle taldearen aurkezpena
- Nori zuzendua dagoen
- Kurtsoaren aurkezpena eta edukien deskribapen labur bat
- Ikasketa burutzeko gomendioak.
- Agurra

Bideoa [ocw.ehu.eus](http://ocw.ehu.eus) plataforman edizioa bukatu eta Campus Birtualaren berrikuspen formala egin ostean grabatuko da.

Ondorengo estekan polimedia aretoari buruzko informazioa, grabazioari buruzko aholakuak eta bideo adibide bat azaltzen dira:

<http://www.ehu.eus/eu/web/cvb/polimedia-aretoa>

## 1. IRAKASKUNTZA GIDA

Derrigorrezko atala.

Era bereizi, argi eta zehatzean ondoko atalak izan beharko ditu:

- **Helburuak**
- **Gaitasunak**
- **Aurrebaldintzak**
- **Deskribapena**
- **Gai-zerrenda**
- **Metodologia**
- **Kronograma**
- Bestelakoa (aukerakoa)

Proposamena errealista eta kronograman zehaztutako arduraldira egokitu beharko da.

Kurtsoko **irakaskuntza gidan** Graduko irakasgaiko irakaskuntza gida jartzea ezinezkoa da, izan ere dokumentu hori aurrez aurreko eskoletarako egokituta baitago eta ez norbere kabuz egiten den ikaskuntzara

## 2. IKASTEKO MATERIALAK

Derrigorrezko atala.

Irakaskuntza gidan aipatutako gai-zerrendarejub bat etorriko da, ahal den neurrian proposatutako gaiek hurrenkera eta izena errespetatuko dutelarik.

Ikasteko materialak ikasgaiak, aurkezpenak, bideoak... izan daietezke.

Multimedia edukiak editatzeko Campus Birtualaren egoitzan *bideoa editatzeko aretoa* eskuragarri dago irakasleentzat: <http://www.ehu.eus/eu/web/cvb/bideoa-editatzeko-aretoa>

Gomendatutako formatuak:

Eduki mota	Gomendatutako formatua
Testua	.pdf (EZ .doc )
Irudiak	.gif .jpg .png (EZ .bmp)
Audio	.mp3 (EZ .wav)
Bideoa	.mp4
Aurkezpenak	.pps (EZ .ppt)
Fitxategiak konprimatzea	.zip

### 3. GOMENDATUTAKO IRAKURGAIAK

Aukerazko atala.

Erabiltzaileei beste iturri independente batzuetara- kurtsoa osatzen dutenez gain-sarrera azaltzea gomendatzen da. Eguneratuak egon beharko dira.

Ahal den neurrian, edozein pertsonak kontsultatu ahal dituen baliabide askeak izatea gomendatzen da. Liburutegi eta argitaletxe birtualetako bertsio digitalean dauden dokumentuak bilatuz, beti ere, erabilera lizentziak baimentzen duen heinean.

### 4. BESTELAKO BALIABIDEAK

Aukerazko atala.

Aurreko atalean aipatu bezala, **sarbidea librea** duten kanpoko beste baliabide edo tresnak ezagutaraztea gomendatzen da. Eguneratuak egon beharko dira.

### 5. PRAKTIKAK, ARIKETAK ETA EKINTZAK

Derrigorrezko atala.

Landutako eduki eta gaitasunekin lotura izan beharko dute. Erabiltzaileak eskatutakoa behar bezala egin eta ulertu duen jakiteko ekintza horien emaitzak igoko dira. Hau posible ez denean, balorazio irizpideak edo errubrika zehaztuko dira.

Auto ikaskuntza eredu jarraituz, **praktikak, ariketak eta ekintzak** atalean azaltzen direnak kurtsoan egiten ari diren pertsonen egiteko modukoak izan behar dute; hori dela eta, ezingo dira talde lanak edo ahozko aurkezpenak proposatu.

## 6. AUTOEBALUAZIO PROZEDURAK

Derrigorrezko atala.

Erabiltzaileek edukien ulermen maila ezagutzeko baliagarriak dira. Azken ebaluazio test bat izango dute gutxienez, eta autoikaskutzara bideratutako beste jarduera eta baliabideak baita.

## 7. IRAKASLEAK

Derrigorrezko atala.

Egileei buruzko informazioa jasoko du. Telefono zenbakia edo posta elektronikoa bezalako datuak ez agertzea gomendatzen da, era irikian egindako argitalpena den heinean.

## 8. BIBLIOGRAFIA

Derrigorrezko atala.

Eguneratua egongo da eta kurtsoko edukien osagarri izan beharko da. Ahal den neurrian baliabide libreak izatea gomendatzen da, (baimentzen duen lizentziarekin) bertsio digitalean dauden liburutegi eta argitaletxe birtualetako dokumentua adibidez.

Aipamenak ezagutza arlo bakoitzak jarraitzen duen oihutura eta erabilerak jarraituz egingo dira.

## 3.- Egile eskubideak

Edukiak sortzean jabetza eskubideei buruzko araudia errespetatu behar dutela kontuan izan behar da. Edukiak sortzea bukatu ondoren, berraztertu beharra izango da arlo honetan izan ditzekete arazoak ekiditeko.

Argi izan behar da OCW plataforman edozein eduki ezartzea posible ez dela. Hori, eskubideen jabeak edo baimenduta egonez gero soilik egin daiteke.



Babestutako edukiak era irekian zabaltzea jabetza intelektualaren eskubidea ustiatzeko era bat da, **besteren eskura (interaktibo)** izenarekin ezagutzen dena hain zuzen ere, legean "hedapen publikoko" ekintza bezala azaltzen da (titularrak bakarrik, eta ez beste inork, dituen ustiapenerako oinarritzko lau eskubideetako bat). Legeak kopia, banaketa, hedapena eta aldaketa eskubideak ezartzen ditu lanaren ustiaketa eskubideak azaltzearakoan.



Kontutan izan behar da Interneten edukiak begiztatzeak ez duela egile eskubideen ustiaketa urratzen. Baina beronen osteko erabilerak, eskuragarri egon arren, jabetza intelektuari dagokionez titularrak ezarritakoa errespetatu beharko du.



Apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bateratuaren 32.artikuluaren **esparru bi bereizten ditu**, bata **irakaskuntza arautuarentzat** eta bestea erabilera **gelaz at denean** eta **Interneten argitaratzen** denean. Beraz, materialak OCW proiektura pasatzean lege esparrua irakaskuntza araturako baino zorrotzagoa dela kontutan izan behar da.

OCW ren kasuan 32.1 artikulua aplikatzen da:

*"32.1. Zilegi da norberaren obra batean sartzea inoren idatzizko, soinuazko edo ikus-entzunezko obren pasarteak, bai eta izaera plastikoa edo fotografiko figuratiboa duten obra bakartuak ere, betiere obrak lehendik jendarteratuak badira eta aipu gisa edo haien azterketa edo iruzkina egiteko edo iritzi kritikoa emateko sartu badira. Erabilera hori irakaskuntzan edo ikerketan egin ahal izango da bakarrik, txertatze horren xedeak justifikatzen duen neurrian eta erabilitako obraren izena eta egilea aipatuz (...)"*

➤ Materialen egiletza:

Materialak egile/autorearenak izan behar dira, jatorrizkoak. Aurretik adierazi bezala, Jabetza Intelektualerako Legeak besterenak diren pasarteak erabiltzea onartzen du, beti ere 32.1 artikulua dioena errespetatuz gero. Baina ezin ahantz dezakegu pasarte hori lan osoarekin alderatuz gero, zati txikia izan behar dela (gutxieneko portzentaia) eta iturria aipatzea ezinbestekoa dela.

➤ Besteren materialak gehitu:

Norberena ez den eta erabiltzen den edozein materialek Legeak baimentzen duen salbuespena gaintzen badu, zenbait eskubide babesturik izan ditzake. Honek, material hori zehazki nola ustiatu daitekeen ezagutzera behartzen gaitu, baita banaketa, aldeketak, aipu eskubideak etab. dagokienean ere.

➤ Irudien erabilera:

Interneten edo sarbide publikoa duten hainbat tokitan azaltzen diren hainbat irudik ere eskubide babestuak dituzte.

Libreki erabil daitezkeenak eskuratzeko, gehienetan bilaketa aurreratua egin beharra dago eta egokiena dena hautatu -"erabilera eskubideei" dagokiona edo "Creative Commons" lizentziarekin.

Ondorengo lotura honetan aurki ditzakezu Creative Commons lizentziadun irudien bilatzaileak:

<http://www.omicrono.com/2011/08/los-mejores-buscadores-de-imagenes-con-licencia-creative-commons/>

Adibidez, *Google Imágenes* delakoak bilaketa aurreratua erabiliz gero, erabilera eskubideei buruzko eremu bat azaltzen da, non lizentzi jakin bat kontutan izanik bilaketa egitea eska diezaiogun. (ikus 1go irudia)

Bide hauek erabiliz lortzen ditugun irudiak ikastaroko materialen artean gehitzean hauek azaldu behar dira: iturria, egilea, erabilera lizentzia eta nondik lortu dugunaren *url*. Adibidez:



[Grand Velas Riviera Maya-ren argazkia \(Flickr-en argitaratua BY-NC lizentziapean\)](#)

exactamente esta palabra o frase:

cuquiera de estas palabras:

ninguna de estas palabras:

Escribe las palabras exactas entre comillas: "flor de escaracha"

Escribe OR entre todas las palabras que quieras:

Añade un signo menos delante de las palabras que no quieras que aparezcan:

A continuación, limitar los resultados por...

tamaño de la imagen: cualquier tamaño

proporción: cualquier proporción

colores de la imagen:  cualquier color  a todo color  blanco y negro  transparente  este color

tipo de imagen: cualquier tipo

región: cualquier región

sitio o dominio:

SafeSearch: Mostrar los resultados más relevantes

tipo de archivo: cualquier formato

derechos de uso: sin filtrar por licencia

También puedes...

Buscar páginas similares a una

Buscar páginas visitadas

Usar operadores en el cuadro de búsqueda

Personalizar configuración de búsqueda

1.go irudia Google Imágenes

Bideo-tutorialak CC lizentziadun irudi askeak bilatzeko:

<https://www.youtube.com/watch?v=HYHc2A2zUDk>

<https://www.youtube.com/watch?v=laTkUMf3Ld4>

Jabetza publiko edo Creative Comon lizentziadun irudien bilduma:



<https://commons.wikimedia.org/wiki/Commons:Welcome>

<https://pixabay.com/>

- Eskaneatutako dokumentuak:

Ezin dira eskaneatutako liburuetakako orriak sartu, izan ere, printzipioz babestutako eskubideak dituzten materialak baitira.

- *Repositorio/biltegi*etako dokumentuak:

Biltegi elektronikoetatik lor daitezkeen dokumentu asko, erakunde edo korporazio jakin bateko erabiltzaile talde jakin batzuei deskargatzea baimentzen zaie. Baina kontutan izan behar da, debekatuta dagoela hauek hedapen zabala izango duen toki batean bererabiltzea, OCW en kasua.

Egitasmo honetako partaideek sinatzen duten, hirugarren klausulan zera dio:

*"HIRUGARRENA. Konpromisoa hartzen du, beren erantzukizunaren pean, materialen jabetza intelektuala edukitzeko eta beren lanetan beste inoren materialak txertaturik egonez gero, haien aipamen eta erreferentzia egiteko, baita lizentzia hau emateko autoritatea izateko ere. Era berean, adierazten de kontratu honetako materialek eta haien moldaketek ez duela hartuta eta ez duela hartuko inongo konpromiso edo kargarik eskubideen kontra doanik."*

#### **4.- Edukien edizioa**

OCW plataforma moodle 2.5 bertsioan oinarritzen da, eGela eta eGelPI bezalaxe. Beraz, lan egiteko era antzekoa da, ezberdintasun bakarra proiektuaren filosofia jarraituz interakzioan oinarritzen diren baliabide eta jarduerarik ez izatea da.

Zalantzarik izanez honen erabilerari dagokionean, Campus Birtualak eGelarako sortutako materialak dituzue kontsultarako .

<http://www.ehu.eus/eu/web/cvb/e-gela-materialak>

#### **5. - Creative Commons lizentzia**

OCW UPV/EHUn ikastaro guztiak Creative Commons lizentziapean argitaratzen dira. Materialak Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin lizentziari lotuta daude:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/>

##### **Egileak erabiltzaileari baimena emanten dio**

- Erabiltzeko eskubidea eta material horiek diren horretan edo era egokitu batean banatzea.
- Erabiltzaileei lan eratorriak egiteko baimena eskaintzen die, beraien


1. Edizio
2. Itzulpen
3. Aldaketa

Beste egile batzuen materiale erantsiz edo elkartuz

#### **Egileak erabiltzailea behartzen du**

- Argitalpena helburu komertzialetarako ez erabiltzea
- Aipamen eskubidea egitean materialak jatorrizko egileari eta UPV/EHUri dagozkiola adieraztea
- Aldaketarik egin den adierazi
- Beraien ekarpenak lizentzia berdinpean eskeintzera behartzen du.

Jatorrizkoa edo egokitutako materiala berriro argitaratzen edo banatzen bada, hauek libreki beste erabiltzaile batzuei lizentzia berdinpean eskeintzera behartzen du.

 **creative commons**

Attribution-NonCommercial-ShareAlike 4.0 International [CC BY-NC-SA 4.0]

This is a human-readable summary of (and not a substitute for) the [license](#).




[Disclaimer](#)

**You are free to:**

- Share** — copy and redistribute the material in any medium or format
- Adapt** — remix, transform, and build upon the material

The licensor cannot revoke these freedoms as long as you follow the license terms.

**Under the following terms:**

-  **Attribution** — You must give **appropriate credit**, provide a link to the license, and **indicate if changes were made**. You may do so in any reasonable manner, but not in any way that suggests the licensor endorses you or your use.
-  **NonCommercial** — You may not use the material for **commercial purposes**.
-  **ShareAlike** — If you remix, transform, or build upon the material, you must distribute your contributions under the **same license** as the original.

**No additional restrictions** — You may not apply legal terms or **technological measures** that legally restrict others from doing anything the license permits.

**Notices:**

You do not have to comply with the license for elements of the material in the public domain or where your use is permitted by an applicable **exception or limitation**.

No warranties are given. The license may not give you all of the permissions necessary for your intended use. For example, other rights such as **publicity, privacy, or moral rights** may limit how you use the material.

(egun lizentziaren informazioa ingeles azaltzen da)

## 6. - Espedienteen kudeaketa

TRAINERA-OCW (<http://gestion.ehu.es/ocw>) eskariak egin eta OCW espedienteak kudeatzeko erabiltzen de kudeaketa tresna da.

Espedientea izapide edo fase ezberdinetatik igarotzen da eta bakoitzean erantzule gisa inplikaturako pertsonaren parte hartzea eskatuko delarik (irakaslea, Saileko Zuzendaria, Campus Birtuala, IUEB...).

Espediente baten egoera kontsultatzeko edo erantzule bezala azaltzen denak ezapide bat egiteko, aplikaziora "Nire espedienteak" atalera jo eta dagokion ezapidean sakatu beharko du.

Izapidez aldatzen den bakoitzean, sistemak posta elektronikoa bat bidaltzen dio izapide horren ardura duenari jarraitu beharreko azalpenekin [administrador-cig-notes@ehu.es](mailto:administrador-cig-notes@ehu.es) helbidetik.

Izapideak ondokoak dira:

1. Eskaera erregistratua:OCW espedientearen hasiera da eta eskaera bat egitean sortzen da. Unibertsitateko erregistro elektronikoan sarrera bat sortzen da.
2. Sailaren oniritzia
3. Campus Birtualak eskaera jaso du
4. Eskaera onartu da-1go fasea
5. Campus Birtualak 1go fasearen berrikustea
6. 2. Fasearen edizioa
7. Campus Birtualak 2. fasearen berrikustea
8. Sailaren berrikustea
9. IUEBra bidali
10. Baimena emateko irakasleen sinadura
11. Ziurtagiria

Informazio gehiago, aplikazioko "laguntza" atalean eskuragarri dago.

## **7.- Zalantzak eta kontsultak**

Ikastaroa prestatzen ari zaretela sor dakizuen edozein zalantza edo kontsulta OCW Bulegoari igorri beharko zaio ondoko helbidean [cvirtual@ehu.eus](mailto:cvirtual@ehu.eus).